

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Mila milioi pertsonak baino gehiagok, munduko **biztanleriaren %15a**, dibertsitate funtzionalen bat dute.

Mugikortasun segurua egin ahal izatea erronka bat da, egunerokotasuna ahalik eta modu ohikoenean garatu nahi duten pertsona askorentzat.

Gure aholkularitza-zerbitzua oso osatua da, eta gure bezeroek beren beharrak bete ditzaten, **aztertu, planifikatu eta egin** beharreko aldaketak egiteko talderik onena dugu.

Bezero mota hauek bereizten ditugu:

- Bezero **partikularrak**; Hau da, enpresa bat ez den pertsona bati zerbitzua eskaintzen diogu.
- **Enpresak**; Konpainia batek dauzkan ibilgailuak moldatzea, bai gidatzailearen moldaketa egitea, bai ibilgailurako sarbidea egokitzea dugu helburu. Adibidez: Bizkaibus eta Bilbobuseko autobusen moldaketak.

Hasiera batean, gure esparrua euskadi mailakoa da, baina prest gaude etorkizun batean, gure herrialdetik kanpo zabaltzeko.

